

# ODOLOSTEAK

—Gure txarriek bai dozakela erraza onekoak —inotsan Felixek Pedrori—

—Ire txarriek? Zer jaukiek ba gureak ez jaukienik?

—Ba gure txarriek odolosteak eta buzkentzak eginda jakardiezak. Txarrie il, odolosteak atera eta... eskegi.

—Ori ezinezkoa dok, mutil! Odolosteak txarrie il eta gero egiten dozak! Arroza eta porrue eta... odola botata.

—Ba beituik, nik txarriei, il bezperan, arroz egozie emoten jeutsiet jateko eta urrengo egunean, txarrie il eta gero... ba odolosteak eginda eta bero-bero urtetan jauriek.

—Eta gozoak izaten dozak?

—Ori ez jakiak nik! Odolosteak Bilboko senideentzat izaten dozak eta...

«Badakik» ba, eurek be Gabon-Otzara ederra ekarten jauriek eta...

*Irakurlea: Bibiñe Pujana - Andereño (Zeanuri)*